

ENERGIA KUDEAKETA

% 50 ARTE
AURREZTU EZAZU



Berokuntza eta ur beroa kostu txikienarekin

Ur beroa eguneko edozein ordu-tan. Goza ezazu dutxa epel eta lasai batez jakinda ez duzula energiarik kontsumitzen. Ur beroa erabili ezazu dutxa, komun edo sukaldean eta ahaztu itzazu ura berotzeko itxaronaldiak; ez duzu berriro bestelako txorrotak irekitzean gertatzen diren bat-bateko tenperatura aldaketarik izango. Sistema eksklusibo honek atxikitutako ura eta bere zapore txarra ekiditzen du. Berehalako eta etengabeko ur bero osasuntsua ekartzen dute Solvis tresnek.

Berokuntza jada ez da luxua. Eguzkia energia-iturri amaigabe eta doakoa da, eta berokuntza-aren kudeaketa tekniko egokiari esker, eguzkia agerian dagoen bitartean guztiz debaldekoa den berokuntza eduki ahal izango duzu; gainera eguzkiko erradiazio gutxiago dagoenean gas edo gasoil gastua zure ohiko kontsumoaren erdira baino ez da iritsiko. Neguan aurreztu ezazu erregaiaren kontsumoan bizikaltaterik galdu gabe.

Erabili ezazu zure igerilekua urte osoan zear. Har ezazu bainu lasai bat zure igerilekuan, uda noiz iritsi itxaron gabe, eguzkia arduratuko baita ura dohainik berotzen. Solvis-en absorzio teknologia aintzindariak eguzki energiak hoztutako uraren bidez etxebizitza freskatzeko lagun-duko dizu. Zenbat eta eguzki-kaptadore gehiago erabili, orduan eta berokuntza gaitasun handiagoa izango duzu neguan.



Baliabide mugagabeak

Eguzkitako kolektorerik gabe ere, SolvisMAX sistemak aurrezten lagunduko dizu.



Solvis sistemaren aldakortasunak edozein energia iturri onartzen du. Hortaz, zure gaur egungo sistema erabiltzen jarraitu ahal izango duzu, modu eraginkorrago batetan eta erabilpen gehiago emanez.

Eraginkorra, garbia eta segurua

Ahaztu itzazu agerian doazen odien nahaspila edo toki heze eta ilunetan dauden erdoildutako gordetegi erraldoiak. Solvis sistemen instalazioak lehen mailako kalitateko materialekin egiten dira; tutuek energia galdu ez dezaten behar-bezala babesten dira eta modu ordenatu eta zentzuzko batetan ipintzen dira. Erabiltzen diren produktuen segurtasun handia dela eta, konfidantza osoarekin sistema hurbil edukitzea ahalbidetzen dizu. Instalazio garbi eta harmoniatsuari esker, etxebizitzaren beste gela bat gehiago izango da.



Bat-bateko onura

Jada ez dituzu hilabeteak itxaron beharko emaitzak ikusteko, hilero ikusi ahal izango baituzu faktura nola murrizten den. Gero eta erradiadore, kumon eta sukalde gehiago eduki, orduan eta gehiago nabaritu duzu gure irtenbideen eragina. Gogoan izan hodeitsuak ez diren neguko egunetan zure energia-aurrezpena %50-tik gorakoa izango dela. Eta gainera fakturari berotutako igerileku bat gehitu ezker, ez duzu topatuko Solvis sistemaren instalazioa gerorako uzteko arrazoirik. Erabili ezazu zure igerilekua urtaro guztietan.



Solar Europeo 2003 Saria



Energy Globe 2003 Saria



2008an Alemanian energia-eraginkortasun haidena izan duen eraikin industrialia


Aurreztu are gehiago

URTEA	SALNEURRIA	HAMABOSTALDIROKO GEHIKUNTZA	URTEROKO GEHIKUNTZA
1970	0,03 €	0	0
1975	0,17 €	% 466,7	% 93,3
1980	0,31 €	% 82,4	% 16,5
1985	0,40 €	% 29,0	% 5,8
1990	0,15 €	% -62,5	% -12,5
1995	0,25 €	% 66,7	% 13,3
2000	0,35 €	% 40,0	% 8,0
2005	0,50 €	% 42,9	% 8,6
2010	0,70 €	% 40,0	% 8,0
2012	0,98 €	¿...?	% 19,0
2015	-	-	-

Gasoilaren salneurriaren bilakaera

Petrolioia eta gasa edo gasoila bezalako deribatuen salneurriaren igotze geldiezinak zure berokuntzaren faktura igo arazten dute. Eta kopuru hau urtero haundituz joango dela aurreikusi daiteke, eskaeraren handiagotzea eta petrolioaren erazketa-aren kostuaren igoera ikusita. Gehitu iezaiozu gasa edo gasoilaren salneurriaren igoerari kudeaketa adimentsuak suposatzen duen aurrezpena: 4000 litroko gasoileko kontsumo batekin eta urteroko %8ko igoera batekin urtero 313€ aurreztuko dituzu.

Zientzia aplikatua



SolvisMax sistemaren funtzionamenduaren eskema

Ez pentsa magia denik, teknologiarekin eta adimenarekin erabilitako energia baino ez baita. Eguzkia beti izan dugu gure alde, hortaz erabili dezagun ematen digun energia guztia eta ez dezagun lan berdina bi aldiz egin.